



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

BERDINDUREN MANIFESTUA, MARTXOAREN 31 TRANS IKUSGARritasunaren NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA

Urtero bezala, gaur, martxoak 31, Trans Ikusgarritasunaren Nazioarteko Eguna da. Egun seinalatua, trans pertsonetako diskriminazioaren aurka gizartea sentsibilizatzeko.

Ziurgabetasun garai hauetan, trans pertsonen eskubideak zalantzan jartzen ari dira giza sexu aniztasuna bezalako egitate bat ukatzen duten ideologiengatik. Horren ondorioz, gaur bezalako egunak garrantzitsuak izaten jarraitzen dute, eta gure gizartean oraindik kalteberak diren kolektiboak ikusarazten dira.

2023an ikusi genuen genero autodeterminaziorako eskubidea Giza Eskubideei buruzko nazioarteko araudian aitortzen dela, eta, estatu mailan, 2023ko otsailaren 16an trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI eskubideak bermatzeko Lege berria onartzean islatu dela. Era berean, 2024an, Euskadin, Eusko Legebiltzarrak trans Legearen erreforma tramitatu zuen, kolektibo osoari arreta integrala eskaintzeko (hala, beste identitate eta korporalitate batzuk barne, hala nola pertsona intersexualak).

Biak dira beharrezko urratsak gizarteak arauarekin bat ez datozen eta mendeetan zehar oinarritu diren hainbat eta hainbat pertsonaren errealitatearekiko itsutasuna gainditzeko. Dena den asko dago lortzeko, oraindik lan handia dago pertsona guztien erabateko berdintasuna bermatzeko, beren bizitzak zeharkatzen dituzten esparru guztietan: juridikoa, soziala, lanekoa...

Berdindu zerbitzutik euskal gizarte osoa gonbidatzen dugu pertsona horiekin batera aniztasunak ematen duen aberastasuna aitortu eta ospatzera. Aniztasun hori, gaur egun, eskubideetan oinarritutako gizarte baten funtsezko zutabe gisa ulertzen da, eta aberasten gaituen balio gisa. Diskriminazioa saihesteaz, errespetatzeaz edo onartzeaz ez ezik, haratago joateaz ere ari gara: pertsona guztientzako eskubideak bermatzeaz, aukera berdintasuna sustatzeaz eta gizartean bizikidetzatza osoa sustatzeaz.